

ZER NOLAKO EUSKERA ERABILLI BEAR DEGU?

Leendabizi norbere lekukoa ondo ikasi eta berari maitetasuna agertuaz mintzatu; onela seme-alaba eta gurasoen artean danok gogotsu arturik eta ondo ulerturik, euskera indartu geinke.

Orrela egin bearrean eta ikastaroko liburuak merketzearen aitzakiaz, or sartu ziguten sasi-euskera batua izenekoa, danok erabili dezagun. Era onetan, alkar ulertu eziñaz, erderakadak gogotik erantzirik, euskal itzak basterturik ogei urte igaro ditugu.

Leenago euskeraren beerakada Espaiñiako agintariei bota geneioken, eurak izan ziran; **LI** gure etsai eta errudunak.

Orain ere, gure kaltetan al dutena egingo dute, baña gure artean orain gertatutakoa ikusirik eta gure buruen jabetasun geiagoz, ordua degu zentzuz jokatu eta MEA CULPA edo barren azterpena egiñik, berandu izan orduko gauzak bideratzeko.

Alderdi politiko arduradunak ere, gogoan artu bearrean aurkitzen zerate egalperrena (avestruz) egin gabe: abertzale zeuen burua jotzen dezutenok, euskeraz ilazten saiatu zaitezte eta ondo egin ez arren, erakutsi ezazue ikasteko eta itz egiteko borondatea, bada oraingo jokaeraz, giza taldeak zearo asperturik, ez arritu bada, gero datozten askatasun bidezko auteskundeetan autarki zuriak ugari agertzen badira.

Ez eskatu Aita Santuari eta besteei euskeraz egiteko, zuek gazteleraz egiñik.

Orain dabillen euskera nolakoa dan jakiteko, naikoa degu Jaurlaritza, Aldundiak eta Udaletxeetako iragarkiak irakurtzea, baita era, izparingietako idazlan geienbat.

Nora begira dago Euskaltzaindia oiek ontzat emoteko?

Gauza bat da euskera txiroa nerea dan bezela azaltzea, bestea ordea euskera, erdera zearo naasturik agertzea.

Indartu daiguzan euskalkiak, bizkaiera ederra da ondo egiñik eta euskaldun ugarik egiten dute bizkaiera, zergaitik orduan bizkaiera baztertu? Gipuzkera ere ondo egiñik ederra da, orduan; auxa da nire galdera Zergaitik ez dira euskalki bi oiek indartzen biak ederrak izanik eta geien bat itz egiten diranak, zergaitik baita irrati eta batez ere

ikusirratietan ez dira alkarrizketak bi euskalki oietan egiten? Orrela entzunaz, or sortuko litzake euskera batua.

Ez txartzat artu nire esanak eta goramenak euskeraren onerako dira eta. Erabaki ezazue gizontasunez euskeraren etorkizuna, gure Erriaren nortasuna gorde eta zainduaz aalik eta laisterren adimen eta aginte daukazutenok.

Ez da naikoa ser vasco Euskadin jaioa, ezta ere euskalduna izatea, orrez gain, euskaldun izateaz gain, leku guztietan euskeraz itz egin bear degu, andrazko eta gizaseme elduei gazteak entzunik, aiek ere euskeraz itz egingo dute.

Zeuen eta gure eskuetan dago AMA bizkortu eta suspertuerazteko lana eta gure Erri guztiaren AMA izatea.

Ez dadila izan nere eskaera, basamortuko izketaldia. Erriak eskertuko zaituzte orrela egiñik.

Ilari Artolazabal´ek irakurrita - Urte asko Bizkaian